K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 1

KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI ALDIZKARIXA 2014ko martxoa 137. zbk.

MUTRIKUKO MOLLAK KONPONTZEN

SEASKAKO IKASTOLEN ETORKIZUNA KOLOKAN

GOIENETXE-ERROTA edo ERROTAZAR

ZAINTZA PARTEKATUA: Eskubide berberak izatea eskatzen dugu

ZAKILAREN TAMAINA

bertan

BERTAN: "Herritarrekin eta herritarrentzat lan egin nahi dugu"

Igualatorioarekin
eta
Osakidetzarekin
lan egiten
dugu

Audioprotesista
egunero dago
zentroan

Audiometriak
doain

Optika Vitoria
OPTIKA -- AUDIFONOAK

Iparkale 1 - Ondarroa
Tel. 946 134 138
mvitoria@cnoo.es
www.optikavitoria.com

Gorritxu
autoak

Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU
943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

- ITV
- DIAGNOSIA
- ELEKTRIZITATEA
- MEKANIKA
- GURPILAK
- MANTENIMENDUA

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 3

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	8
Gizartia	10
Karenka	12
Lapazorrikeixak	14
Historixa	15
Lan giruan	16
Bertsuak	18
Hezkuntza	19
Zorion agurrak	20
Argazki zaharra	21
Agenda	22

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen-iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.

Telefonoa
635 748 393
e-maila
kalaputxi@topagunea.com
kalaputxi2001@gmail.com
Bloga
kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea
Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga,
Javi Castro, IXA sexualitate eskola.
Tirada
2.200 ale
Lege Gordailua
SS-787/01
ISSN
1579-4792
Inprimategia
EUSKALINPRI. Deba
Banaketa
Kalaputxi

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mutrikuko Udaleko Kultura eta Euskara

iritzixa

Zer izan nahi duzu handitzen zarenean?

"Zer izan nahi duzu handitzen zarenean?" Makina bat aldiz entzun izan dut galdera hori haur gazteei egiten, eta hamaika erantzun desberdin entzun izan ditut; modeloa, futbol jokalaria, ile-apaintzailea, famatua, ama… kolore guztietako erantzunak jaso daitezke, haurra eta egunaren arabera.

Baina badira gauza batzuk errepikatzen direnak; "Handitzen zarenean" horrek, 25-65 urte bitarteko adin tartea adieraztea bata , eta zer izan baino, zein ofizio edukitzea gustatuko litzaizukeen galdera egin/erantzutea bestea. Ondorioz, galdera sinple honen atzean hainbat tranpa ezkutatzen dira, izana eta ofizioa parekatzea bat adibidez. Gaurkoan ordea, beste hari mutur batetik tira egin nahi diot korapilo honi. Zer gertatzen da 65 urtetik gorako "bizitza tartearekin"? Inoiz pentsatu al dugu zer izan edo egin nahi dugun adin honetatik aurrera? Esango nuke gehienok garai honekin amets egin izan dugunean, segurutzat jo izan dugula jubilatu eta "ondo bizitzeko" momentua izango dela. Bizi guztian egindako lanaren ordainsari gisa.

Baina lanerako bidean 60 urte aspaldi pasata dituen gizona goizero goizero bere emazteak lagunduta, organoa muntatu eta diru eske ikusten dudanean, orain arte ziurtzat jo izan dudan baieztapena kolokan jartzen zait. Zer gertatuko da hemendik aurrera adin tarte horretako jendearekin? Ba ote dago egungo gizartean ziurtasun nahikorik adin honetako jendearen ongizatea bermatzeko?

Edozein adinetako jendeak krisiaren ondorioz bizitzen ari den egoera gogorren berri izatea ez zait gozoa egiten. Baina hirugarren adineko jendearen egoera bereziki mingarria iruditzen zait. Eta ez dakit ba, arazoa konpontzeko biderik aurkitzeko ahalegin errealik egiten ari garen.

Izan ere, pasatuko da ditxosozko krisi hau, baina ikasiko al dugu zerbait bertatik? Bizitzan bide okerra askotan hartzen dugu, baina beti esan ohi den bezala okerretatik ikasten da… Zerbait ikasten ari ote gara oraingoan? Edo dena pasatzeko zain gaude, berriro ere berdin berdin jardunteko?

Nire lagun batek dio txarrena ez dela harri berdinean behin baino gehiagotan trabatzea, trabatzen zaren aldiro berriro altxatu eta zerbait ikasten baduzu. Txarrena, harriaz "maitemintzea" dela dio berak. Hau da, harriarekin tupust egin eta tente jarri orduko, koska beraren bila joatea itsu-itsuan, besterik egiten ez dakizunaren aitzakian.

Eta krisiaren kasuan ere susmoa dut, "kariño" handiegia diegula muturrak irekitzera garamatzaten harriei. Ez al gaude zauria osatzen denerako aurkitu nahi dugun koskarekin ametsetan?

Naiara Uranga Lasarte

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 4

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Zaintzako botikak:
Otxagabia (Mutriku) ..... 943 19 50 26 / 689 58 57 59
Apraiz (Mutriku) ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Zalduegi (Deba) 669 26 22 01
Burgoa (Deba) 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) 943 74 12 77

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua 943 60 34 18
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz Frontoia 943 60 41 91
Ur partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Anai Arte 943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola 943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia 638 672 383
Anton Taxia 666 221 999
Xabi Taxia 656 289 026
Pesa autobusak 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Iberdrola 901 20 20 20
Kofradia 943 60 32 00
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Gasolindegia 943 60 32 10

ordutegiak

Autobusak

MUTRIKUTIK → DONOSTIARA

Astegunak 7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak 10:00 / 16:30
Jai egunak 10:00 / 19:30

DONOSTIATIK → MUTRIKURA

Astegunak 8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak 11:30 / 19:30
Jai egunak 11:30 / 20:30

MUTRIKUTIK → BILBORA

ASTEGUNETAN GOIKO ERROTONDATIK

06:25 / 07:25 / 15:25

BILBOTIK → MUTRIKURA

14:10 / 18:10 / 20:10

MUTRIKUTIK → DEBA - MALLABIA

Astegunetan: 7:15etik 21:15era orduro.
Jai egunetan: 8:15etik 21:15era orduro.

MUTRIKUTIK → ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, orduro.
Jai egunetan: 7:55etik 20:55era orduro.

Trenak

Orduro ateratzen dira adierazitako ordu tartean.

DEBA → DONOSTIA → DEBA

Debatik **6:44** – 7:44 - ...- **21:44**
Donostiatik **5:47** – 6:47 - ...- **20:47**
Jai egunetan 8:44etan lehenengoa.

DEBA → BILBO → DEBA

Debatik **6:43** – 7:43 - ...- **20:43**
Bilbotik **6:00** – 7:00 - ...- **20:00**
Jai egunetan 8:43etan lehenengoa.

DEBA → EIBAR → DEBA

Debatik **6:43** - 7:43 - … - **21:43**
Jai egunetan, 8:43etan hasiko da

Eibartik **6:13** - 7:13 - ... - **21:13**
Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 5

HAMAIKA AMETS
HAMAIKA URRATS

Oraindik ez al daukazu "TELEGRAM" aplikaziuasakeleko telefonuan?
Whatsapp-aren funtziuak eta gehixo dauzka, duan da, eta euskeraz ipini leike!
Deskargatzeko sartu helbide honetan:
http://bitarlan.net/proiektuak/Telegram %20euskaraz

APROBETXATU AUKERA ERRAZ, LABUR ETA EROSO!

GURE ESKU DAGO

Herrietan eta herritarrek abiarazitako ekimena

Langintza honetan gabiltzanontzat datozen urteak garrantzitsuak izan daitezke. Alde batetik, Eskoziak horren inguruko galdeketa antolatuko duelako eta bestetik, Kataluniak gauza bera egiteko asmoa agertu duelako. Euskal Herrian ere ideologia eta alderdikeri guztien gainetik herritarren ordua iritsi da eta bide horretan mezu argia plazaratu nahi dugu:

•Herri gisa gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugula.

•Erabakitzea herritarroi dagokigula.

•Eta eskubide hori erabiltzeko borondate irmoa daukagula.

Hori guztia gauzatzeko iritzi eta sentsibilitate desberdinetako herritarrek elkarrekin ekintzak burutzea da helburua.

Hona proposamena:

1.- Gure esku dago ekimenarekin bat etorriz gero, zure atxikimendua adieraztea eskatzen dugu, zure sinadura eskainita.

2.- Gure esku dago ekimenarekin bat etorriz gero, geure burua ekimenaren alde dagoela adieraziko duen argazkian parte hartzea proposatzen da.

3.- Gure esku dago ekimenarekin bat etorriz gero, ekainaren 8an Durango eta Iruña elkartuko dituen gizakatean parte hartzea eskatzen da.

4.- Gure esku dago ekimenarekin bat etorriz gero, norbere inguruan ekimenaren berri emateak eta ahalik eta herritar gehien ekimenera erakartzeak asko indartuko luke ekintza.

Mutrikuko Gure esku dago

2014ko SANTA ESKEA

Santa eskea otsailak bata
Santa agedan omenez
Aterik ate aritu ginen
Hotzari aurre eginez

Iaz bezela Santa Eskeak
Bazituen bi helburu
Parte hartzea bultzatu eta
Kultur taldeei lagundu

Lau talde eder osatu ziren
Laurogei lagun denera
Inoiz etorri ez zen jendea
Animatu zan gainera

Ohitura zarrak uztartzen ditu
Kantua eta eskea
Beste behin ere eskertzekoa
Jendean borondatea

Batu genuen limosnatikan
Egin genitun zati bi
Erdia bertso eskolari ta
Bestea Kalaputxiri

Eskerrik asko Mutrikuarroi,
hor jarraitu parte hartzen
Ohiturei eusten dien herriak
Nortasunik ez du galtzen!!!

Mutrikuko Bertso Eskola

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 6

ZAINTZA PARTEKATUA

“Eskubide berberak izatea eskatzen dugu”

Urte batzuk dira banatu zela. Ondoren egoerak ez zuen hobera egin. Hasieran umea ikusteko aukerak ugariagoak ziren baina bikote ohia bere herrialdera, Alemaniara joan zenean aldatu egin ziren gauzak.

Egoera gordina zurea…

Hala da. Banatzeko erabakia hartzea ez da samurra izaten eta behin hori erabakitzen duzunean pentsatzen duzu harremanak errazagoak eta leunagoak izango direla baina ez da beti hala izaten. Umerik ez badago tartean errazagoa da baina nire kasuan umea zegoen eta arazoa korapilatu egin da. Banatu ginenean errazago zen umearekin egotea baina egun batetik bestera nire bikoteak bere herrira itzultzea erabaki zuen. Epaileak ere ontzat eman zuen amarekin hobeto egongo zela argudiatuta. Ordutik aurrera nire bizitza beste bat da. Nire kasuan ez da tratu txarrik egon, baina hala ere egokiago ikusi zuen epaileak amarekin egotearena. Honetan umea da gehien ordaintzen duena, erabaki honekin umearen eskubideak urratzen direla diot hala sinisten dudalako.

Askotan ematen den egoera al da?

Ia gehienetan. Test sikosozialak egitera behartuta gaude eta nahiz eta ondorioetan atera guraso biak direla gai umea hazteko ia beti amaren zaintzapean gelditzen dira eta uste dugu ez dela bidezkoa hori egitea. Honetaz gain uste dugu indarrean dagoen legea matxista ere badela.

Zergatik?

Emakumeari ematen diolako umeak hazteko ardura eta iruditzen zaigu betiko roletan gaudela. Aita batek nahi badu bere seme-alabaren ardura hartu zergatik ezin du hori aurrera eraman?

Lege berririk bada honetaz?

Oraindik ez, zirriborroa aurkeztu da Jaurlaritzan eta maiatza alderako uste da aterako dela. Oraindik ez dakigu zer gertatuko den edo zer ez den gertatuko. Legeak badauka ere bere kontraesana, zer amak esaten badu bere senar-bikote ohiak tratu txarrak eman dizkiola automatikoki umea amarengana doa, nahiz eta tratu txarrik egon ez.

Eta horren aurean zer?

Guk uste dugu tratu txarren kontua aztertu eta ikertu egin behar dela. Egia bada ondo dago baina hala ez bada? Gizonezko batek emakumea jotzen badu, tratu txarra da, genero indarkeria. Aldiz, emakumeak gizonezkoa jotzen badu, etxeko indarkeria dela esaten da. Ondorioz, lehenengo kasuan gizonezkoa kartzelara doa eta bigarrenean berriz, 40-60 euro ordaindu ondoren kalera ateratzen da.

Eta kasu horiek ematen dira?

Bai, askotan. Emakumeak badaki oso tresna baliagarria dela berarentzat, zer bera umearekin gelditzen da, etxearekin, eta denekin eta gizonezkoa kale gorrian gelditzen da, eta hori oso gogorra da. Bestalde, Euskal Herrian nirea bezalako kasu asko ematen dira umeak 6-10 urte edo hemen bizi eta ama atzerritarra bada eta nahi badu bere herrira joan, epaileak baimena ematen dio umearekin hara joateko.

Guk diogu, lehenik umearen eskubideak daudela, ez gurasoenak eta oso kontuan izan behar da ume horrek non dituen sustraiak. Hemen baditu zergatik umeak bizi behar du beste hizkuntza, beste kultura, beste errealitatea… umea da gehien ordaintzen duena eta sikologikoki umearentzat oso kaltegarria da.

Elkarte bateko kide zara?

Bai KIDETZA elkartea. Denetariko jendea biltzen gara elkartean, oso gaizki dauden emakumeak, tratu txarrak jasan dituelako, eta alderantziz ere, erabat anulatutako gizonak bikotekide ohiak nahi zuen guztia egiten ziolako. Zauri sikologikoa fisikoa baino gutxiago ikusten da. Bietatik dago, zoritxarrez parekotzen ari dira bi sexoen arteko tratu txarrak, baina alde batekoak bakarrik kaleratzen da.

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 7

Zergatik?
Gehiago saltzen duelako izango da.

Etxe barruko kontuak zirela esaten zen lehen?
Bai, garai haietan dena isilean eta dena etxe barruan izan behar zen.

Egungo egoera ez dela bidezkoa diozu…
Egun indarrean dagoen legea 2004koa dela uste dut. Indarrean jarri aurretik emakumeak salatzen bazuen bere bikotea ez zen ezer gertatzen eta legea indarrean jarri ondoren egoerak buelta eman zuen, emakumeak bikotea salatu ondoren automatikoki gartzelara sartzen da, nahiz eta salatzen dena egia ez izan. Ikerketa ondoren egiazkoak ez zirela argitu arren alferrik da, kaltea egina dago. Kautelazko neurritzat hartzen da hau eta salaketak normalean ostiraletan ematen dira, bikoteak asteburua atxilotuta pasa dezan. Zoritxarrez oso ohikoa da portaera hau. Ni ertzainetan salatu ninduen nire umeari ilea moztu niolako, pentsa noraino heltzen den egoeraren larria. Batzuk salatzen dute salatzearren eta beste batzuk ez dute salaketarik jartzen bildurra dutelako, hauxe da errealitatea. Gure ustez arma erabilgarria da emakume askorentzat salakatea faltsuak egitea. Eta askotan zintzoak ordaintzen dute pekatariengatik.

Bidea gogorra da…
Oso-oso gogorra. Azkenean zure eskubideak zapaltzen dira baina gehien bat umearenak. Ume horiek aita badute baina bahituta. Umeak aita ez du ikusten eta aitak umea ere ez. Nire umea bi hilabetez behin ikusten dut, hiru egun izaten ditut berarekin egoteko. Udan hilabete eta aste santuan aste bete. Astean bitan ahal diot deitu telefonoz. Etxean ez badut aurkitzen txanda hori galdu dut. Hauxe da nire errealitatea.

Eta partekatzen legea nolakoa izango litzateke?
Idealena biak adostasunera iristea izango litzateke eta ez litzateke lege beharrik baina zoritxarrez ez da holakorik ematen. Guk ez dugu eskatzen erdia izatea, baina bai gutxieneko adostasunetara iristea. Bakoitzaren egoerara egokitutako adostasunera iristea, eta trabarik ez jartzea guraso horrek umearekin egoteko orduan, modu natural batean eramatea kontua. Gero beste arazo handi bat da etxearena, etxea biena bada onena etxea saltzea eta bakoitza bere aldetik joatea, baina egungo egoeran ea zeinek saltzen duen etxea. Guk uste dugu etxe sozialak jarri behar direla egoera honetan dauden gurasoentzako, egoera lasaitzeko.

Elkarteko partaideen profila…
Adin guztietakoak gaude bertan. Askok eta askok duten soldatarekin, mantenua, hipoteka, alokairua… ez du ematen denetarako. Asko itzultzen dira gurasoenera eta beste askok bere buruaz beste egiten du, eta hau ez da agertzen egunkarietan, ez du saltzen eta.
Nire nahia da nire umeak ahal duen gutxien sufritzea eta elkarrekin egoteko aukera gehiago izatea. Guraso ona izan arren hauxe da bizi dudan errealitatea.

KIDETZA
Euskadiko Guraso Bananduen Federakuntza

AGIPASE-Gipuzkoa- 943 292 496
AMAPASE- Araba- 945 259 831
ABIPASE- Bizkaia- 946 569 204



Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 8

Badator, aurten ere, Euskarazko film laburren zirkuitua

Sormenaren bide ezkutuak arakatu nahi ditu beste urte batez Laburbirak, hamaikagarrenez, sortzaileen bide ezkutuak ageriko eginez. Ikasle, bizizale, euskaldun berri zein zahar, arotz, mediku eta herritar denentzat euskarazko film laburren zirkuitua aprilaren 4an helduko da Mutrikura (22:15etan Zabiel Kultur Etxean). Hori posible egiteko Karenka, Zine Forum eta Udala elkarlanean ariko dira.

ABUZTUA. 2013 (17´)
PELLO GUTIERREZ
Sinopsia: Julenek mugitu ezin den amonaren ardura izango du uda euritsuko arratsalde sargorietan. Kontakizun bat maitasuna eta izuaren mugan.

AIO. 2013 (10´04´´)
ERABAKI PROD.: OIHAN AMEZUA, KARLOS IBARBIA, NETZER BEREZIARTUA, ASIER SUSTAETA.
Sinopsia: 25 urte atzera gertaturikoak... eromenera darama sendi osoa.

IRUDI MINTZATUEN HIZTEGI POETIKOA 2013 (13´20´´)
AITOR GAMETXO, MAIDER FERNANDEZ ETA MARIA ELORZA
Sinopsia: Gizon batek hitzak lekuak direla esan zigun. Horrela, sei hilabetez tokiz-toki ibili ginen, euskalki ezberdinetako esamoldeak bilatzen. Bidaia horretan topatutakoarekin sei esapide batu eta hiztegi txiki bat osatu dugu, pantaila hitz irudikatuen eta irudi mintzatuen topagune dela pentsatuz.

EUSKALDUN BERRIAREN ESKETXA 2013 (5´12´´)
KEPA ERRASTI
Sinopsia: Robertok izugarrizko borondatea dauka euskaraz jarduteko. Handiegia, antza, batzuentzat…

MARYLIN. 2013 (11´15´´)
IÑAKI BERAETXE
Sinopsia: Marilyn txakurraren bizitza ez da samurra, kaiola barruan. Egun batean, ordea, argiak itzalak garaitu ditu. Naturaren eskutik zoriontasunera bidaiatu du Marilyn maiteminduak...

PLAZA BAKARRA. 2013 (3´06´´)
MEDIAWORKS 3.0: ION VAZQUEZ, CARLOS ALONSO, ION BARATAS, ELBIRE RICO
Sinopsia: Gabonak badatoz. Amalur neskatxa gaztea urduri dago, aurten izango dituen oparien zain baitago.

SORMENAREN BIDE EZKUTUAK. 2013 (15´36´´)
LARA IZAGIRRE
Sinopsia: Eneko Atxa sukaldariak eta Lara Izagirre zinemagileak sormenaren bideetan barrena eramango gaituzte. On egin!

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 9

AHO BATEZ ONARTU DUTE
HONDAKINEN BILKETARI BURUZKO HERRI GALDEKETA EGITEA

Udala osatzen duten hiru alderdiak (Bildu, EAJ eta Berdeak-Independenteak) bat etorri dira hondakinen bilketa sistemaren gaia nola landu erabakitzean. Guztiek baiezkoa eman diote Bilduk egindako proposamenari. Proposamen horrek hiru puntu biltzen ditu: lehena, Mutrikuko Udalak Herri galdeketa gauzatzea hondakinak biltzeko sistema aukeratzeko; bigarrena, galdeketa egin aurretik, Gipuzkoan martxan dauden bilketa-sistemen inguruko "informazioa zabaltzearren eta debatea ematearren", herri osoak parte hartzeko aukera izango duen parte hartze prozesua egitea; eta hirrugarrena, parte hartze prozesu osoa kudeatzeko ardura hartuko duen Hondakinen batzordea eratzea.

IRAKURZALEEK LIBURUAREN EGUNEAN HAINBAT EKIMEN DAKARTZATE

Irakurzaleek apirilean hainbat ekimen egino dituzte Liburuaren Eguna dela-eta. Apirilaren 26an hasiko dira. Egun horretan, 18:00etan Luardon errezitala egongo da, eta herritarrek gustuko duten testu zati bat edo norberak sortutako literatura piezaren bat irakurtzeko tartea edukiko dute. Horretaz gain, Uxue Alberdiren Aulki jokoa liburuaren zatien irakurketa ere egingo dute "lagun artean". Azken ekimen horren eguna oraindik zehazteke dago.

MARTXOAREN 8AN SATURRARANGO KARTZELAN EGONDAKO EMAKUMEEI OHORE

Saturrarango kartzelan preso egondako emakume antifaxistak omendu zituzten martxoaren 9an. Ekimena Ahaztuak elkartearena izan zen, eta udal ordezkariek parte hartu zuten bertan, hainbat herritarrekin batera. Omenaldian Angeles Perez Leon kartzelako preso ohia eta preso egondako beste zenbait emakumeren senitartekoak egon ziren. Kartzelan preso egon ziren emakumeen sufrimendua, duintasuna eta borroka azpimarratu nahi izan zuten omenaldian. Perez Leonek hitzak izan ziren omenaldian pisu gehien izan zutenak: "Ni pribilejiatua izan nintzen. Beste batzuk ez ziren hemendik atera. Kartzelan zaudenean, eta heriotz zigorra duten kideak aldamenean dituzunean, borroka da azpimarratu behar dena. Borrokatzea ondo dago, baina lasaitasunetik borrokatu behar da. Eta horretarako guztion arteko batasuna bermatu behar da".

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 10

SEASKAKO IKASTOLEN ETORKIZUNA KOLOKAN

Frantziako gobernua ez dago ados Seaskaren bilakaerarekin. Berrogei urtetik gora ari da Seaska iparraldean euskara hedatzen eta indartze lanetan, baina oraingoan altoa eman eta urte guztietako lana eta lorpenak hankaz gora bota nahi ditu frantses gobernuak.
Egoera larriaren aurrean jendea hasi da mugitzen eta urte berriarekin batera Seaskaren Lagunak elkartea eratu da, eta bertako kide den Patxi Bergararekin hitz egiteko aukera izan dugu

Zein da Seaskaren egoera?
Egoera biziki larria da batez ere suprefekturaren bitartez frantses gobernuak bere hortzak erakutsi dituelako eta beraz ikastolen garapena bere gain hartzen ez dituelako. Ikastolak zailtasunekin ari dira. Garatzeko lurrak behar dituzte eraikuntza berriak egiteko eta orain arte baziren herriko etxeekin (udaletxeekin) elkar lanean eginiko proiektuak, baina egun, prefekturak dio legez kanpokoak direla aurtengo lorpen guztiak.

Zenbat urteko bizitza du Seaskak?
Berrogeita bost urte (1969an sortua) Egun hiru mila ikasle ditu Seaskak eta azken urteetan %60ko igoera izan duela esan daiteke. Orain arte arazo ez zena badirudi ez dela administrazioaren gustukoa Seaskaren bilakaera.

Eta zeintzuk dira arazorik larrienak?
Unesco-k dio hizkuntz bat mantentzeko populazioaren %30ak hitz egin behar duela. Ipar euskal Herrian %10ak hitz egin behar du. Beraz euskararen egoera larria da. Alta, esparantza bada gero eta haur gehiago Seaskara joaten direlako. Azken urteetan Ikastolan sartu diren haurrek haien belaunaldiaren %10 baino gehiago errepresentatzen dute, nere garaian %5 baino guttiago zelarik.

Dinamika baikor hori frantses estatuak hautsi nahi izan du. Ikastolarik ez zen herrietan Ikastolak sortzeko priektuak agertu dira (Beskoitze) baina oztopatuak izan dira. Beste batzuetan ikastolak txikiegiak geratu dira (Hendaia) eta Herriko etxeekin handitzeko erabakiak hartuak izan ziren. Agindu horiek Frantses gobernuak hautsi nahi izan ditu suprefetak eta prefetaren bitartez proiektu horiek auzitegi administrabora eramanez.

Gobernuak euskararen ikasketaren garatzeari eta euskararen babesari oztopo egin dio. Horrez gain, ezezko horrek hurrengo urteetako hamabost bat proiektu dudan ezartzen ditu, hala nola Arberoa, Lekorne, Azkaine… Okerrago, gaur egungo murgiltze sistema guzia zalantzan ematen du, jakinez Itsasuko, Kanboko eta Senpereko ikastolak, besteak beste, Beskoitzeri berriki ezeztatuak izan zaizkion baldintza beretan direla (herrietako lurrak alokatzen dituzte).

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

PANADERIA OKINDEGIA POTERO
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 11

SEASKAREN LAGUNA

Behin eta berriz aipatzen da Falloux legea, zer dio honek?
Herriko etxeek ezin dutela lagundu pribatuak diren eskolak. Frantziako administrazioak dio Seaskako ikastolak pribatuak direla eta udal administrazioak ezin dituela lagundu. Seaskak bere aldetik dio, eskola laikoak izateaz gain lan garratzitsua egiten ari direla Euskal kulturaren eta euskararen sostengatzeko eta ezin direla berdin tratatuak izan. Seaskak uste du bai euskaraz ari direnak, baita hizkuntza gutxituetan ari diren beste eskolek ere lege berezi bat behar dutela izan, murgiltze sisteman ari direlako. Era berean murgiltze sistemaren lege propioa eskatzen du Seaskak.

Udaz geroztik mobilizazioetan ari da Seaska?
Abendu bukaeran izan zen manifesta eta horretaz gain gehiago ere egin dira. Jendetsuak izan dira manifestak eta lortu dutena, Seaskako lehendakaria eta Kultura arduraduna biltzea. Mementuz ez dugu erantzunik baina ez gara fio.

Seaskaren lagunak elkartea sortu duzue, zein helbururekin?
Urtarrilaren 18an biltzar sortzailea egin genuen. Sortzaileak Seaskako ikasle ohiak, guraso ohi batzuk eta beste aldetik Seaskaren filosofiarekin eta irakaskuntza moduarekin ados daudenak dira, ikusten baikenuen Seaskak laguntza ekonomikoa behar zuela leku guztietatik erasotzen ari zirelako. Seaskaren egituran beste atal bat garela esango nuke. Badakigu ehun bat lagun garela eta gure ahaleginak eta aleak jarri nahi ditugu behar diren ikastolak eraikitzen laguntzeko eta behar direnak lortzen, jakin badakigu frantzes administrazioak ez duela lagunduko.

Nora zabaldu nahi duzue zuen mezua?
Iparraldeko antolaketa bat izan arren nahiko genuke Euskal Herrira zabaldu gure mezua. Eta mundu osora ireki. Ideia da Euskal Diaspora osoa mobilizatzea ikastolak mantentzeko. Nahi dugu Hego Euskal Herrian ere ekitaldiak egitea diruz laguntzeko eta zabaldu nahi dugu Argentinara ere, ikastolak lagundu nahi dituzten Amerikako euskaldunak ere ongi etorriak izanen dira. Mementuz ez dugu ezer zehaztuta hegoaldera begira.

Herri Urrats ere laster da?
Garrantzia handia izango du aurtengo Herri Urratsek. Gure indar guztiak jarriko ditugu honetan eta ahal den jende gehiena hurbiltzea, da gure nahia. Diru laguntza guztiak ongi etorriak dira, hego aldekoak ere, laguntza lantalde bat sortu nahi badu ere ongi etorriak izango dira, posta elektronikoz zein Facebook bidez jarri daitezke gurekin harremanetan: **seaskarenlagunak@gmail.com**
www.Facebook.com/seaskarenlagunak
www.twitter.com/seaskarenlaguna

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 12

MARIA LUISA URIARTE

farmazialaria

Ez da ohikoa 97 urte betetzear dituen emakume honen bizitza. Bere sasoiko emakumeek ez zutenean aukera handirik ikasketa unibertsitarioak egiteko, egoera zailean, ausardiaz jokatu eta Gasteizen, Madrilen eta Santiagon osatu zituen bere ikasketak, gerra tarteko. Ondarroan jaio eta Mutrikun bizi da hirurogei urte pasatxo.

Nolakoak izan ziren zure haurtzaroa eta lehen ikasketak?

Ondarroan jaio nintzen 1917k0 abuztuaren 19an, eta orduko haur guztien antzerako bizitza izan nuen. Nire aita, bermeotarra izatez, merkantzia-ontzietan egiten zuen lan, eta etxetik kanpo denbora asko egiten zuenez, nire heziketa, gehienbat, bi emakumeen ardura izan zen: ama eta amonarena, honen etxean bizi baikinen Ondarroan.

Lehenengo hizkiak moja frantsesetan ikasi nituen. Gogoratzen naiz Sor Marta izan zela bi lerroren artean idazten erakutsi zidana orduko pluma eta tintaz. Baina laster pasatu nintzen eskola publikora, Zubi berri inguruan bizi ginen eta etxetik hurbilago eta izeba bat bertan maistra zegoelako.

Batxilergoa hasteko adinera iristean, Gasteizko karmeldarren kolegiora bidali zidaten egoiliar, eta han egin nuen batxilergo osoa, errepublika ezartzean institutura joatera behartu baitziguten ere kolegio erlijiosoetako guztiei. Udara bukaeran kurtsoa hasi eta soilik Gabonetan etortzen nintzen Ondarroara. Titulua ateratzeko tribunal berezi batetik pasatu behar izaten ginen. Ordukoa da nik dudan kultura orokorra.

Zein izan zen zure unibertsitateko bidea?

Batxilergoa bukatu eta denbora apur bat etxean egin ondoren, berriro Gasteizera joan nintzen akademia baten unibertsitaterako sarrera prestatzera. Lehengo kolegio berean bizi nintzen, nahiz eta ikasketak kanpoan egin.

Han nintzela hasi zen gerra zibila, eta, denbora batez, etxekoekin kontaktua galdu nuen, ez gene-

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:45 Página 13

kien elkarren berri. Hala ere, genuen adinarekin ez genuen ulertzen zer zen gerra, soldaduak mutil gazteak bakarrik ziren guretzat, eta, hain zuzen, kolegioaren aurrean kuartel txiki bat zegoenez, primerako jagole bihurtzen ginen nire lagun bat eta biok. Gazte haiek guztiak kontrolatzen genituen, nor sartu, zein atera, eta irrikan egoten ginen kalera ateratzeko. Asperrarazi ere egiten genituen mojak gure eten gabeko kalera ateratze baimen eskariez, baina paseora atera eta mutilen begiak guri begira sentitzea ez zen edonolako gauza.

Egia esan, ordutegi zehatza genuen, eta iluntzeko bederatzietarako etxean egon behar izaten genuen. “El abuelo” deitzen zioten hegazkina ikustean soilik jabetzen ginen gerra zegoela, eta, hala ere, barre ere egiten genion ikusi baino lehenago bere zarata sumatzen zen tramankulu hari.

Noiz arte etxekoen berri jakin gabe?
Frankistak Ondarroara sartu zirenean bertako maisu bat Gasteizera etorri zen bere familia bisitatzera, eta hark eraman ninduen herrira. Baina nire ama eta amona alde eginda ziren herritik, frentea gure etxearen aurrean egon baitzen, eta balak etxe barruraino sartzen zirelako. Lehenengo Berritxura joan ziren, eta han ama leihoan zegoela bala batek zauritu zion belauna, eta Lekeitioko ospitalera eraman zuten. Zauria sendatu ondoren, ez zen garrantzizkoa izan, bertan gelditu ziren bizitzen osaba notarioaren etxean.
Famili bateko zein besteko emakumeak bildu ziren elkarrekin, senarrak alde eginda baitzeunden. Beraz, Ondarroara iritsi eta egun batzuk bertan igaro ondoren, Errioxako San Vicente de la Sonsierrara eraman ninduten osaba baten etxera.
Aita Ondarroara iritsi eta inor ez aurkitzean, San Vicentera etorri zen. Negua elkarrekin pasatu ondoren, denok Ondarroan biltzeko aukera izan genuen, eta bizitza era arruntean jarraitu.

Noiz hasi zenituen estudio unibertsitarioak?
Gerra apirilaren eman zuten bukatutzat, eta urriaren lehenean hasi nituen nire lehengusina batekin batera farmaziako estudioak Madrilen. Lehen bi urteak egin ondoren, aspertuta Madrileko bizitzarekin, eibartar lagun batekin Santiagoko unibertsitatera egin genuen salto. Hango bizitza alaiagoa zen, nahiz eta Madrilen zein Santiagon, beti bezala, mojen kolegioetan bizi, askatasun gehiago genuen mutilekin ibiltzeko, goatekeak egiteko, eta abar. Egia esan, adinez ere aurrera gindoazen, beraz bizitza normalagoa egiten genuen, jakina, ordutegia xuxen-xuxen bete behar izaten zen.

Hiru kurtso Galizian osatu ondoren atera nuen farmaziako lizentzia.

Nola ireki zenuen botika Mutrikun?
Estudioak bukatu ondoren, ez zen erraza izaten farmazia bat irekitzea, zeren, orain bezala, mugatuak ziren. Etxean geldirik egon ordez, Madrilera joan nintzen berriro, eta analisia, optika eta inspekzio ikasketak egin nituen. Estudioak bukatu eta hiru bat urtera izan nuen aukera Mutrikun farmazia irekitzeko, hemengo “botikario txikiak” lana utzi zuenean.

Farmazia irekitzen duzu Mutrikun, eta zerekin aurkitzen zara? Zein zen orduko egoera?
Ez naiz ziur gogoratzen zein urtetan izan zen, baina 1950. urte inguru horretan izango zen, baitakidana arazotxo administratibo batzuk izan nituela irekitzerako orduan.

Orduko egoerak, jakina, ez zeukan inolaz ere gaurkoaren antzik, medikamenduak urriak ziren, eta nik prestatzen nituen zenbait xarabe eta pomada. Ez zegoen, ez da ere, gaurko Seguritate Soziala, eta medikamenduetara iristeak bere kostua zeukan: arrantzaleei kofradiak hiru laurdenak ordaintzen bazieten ere, beste herriko langileek ez zuten horrelako abantailarik. Bestalde, osasun kultura oso murritza zen, eta asko eta asko etortzen ziren botikara mediku kontsulta balitz bezala. Beldur izaten nintzen ea asmatuko nuen, hango edo hemengo mina daukat eta hura kentzeko botika baten bila etortzen zirenean. Oraindik ere, garai hartako medikuei begirunea diet: Haiek bai zirela “don”.

Orokorrean txiroagoa bai, baina jende sanoagoa zen ordukoa. Kaiera potolo baten apuntatzen nituen zorretan gelditzen zirenak, eta inoiz ez nituen ezabatu guztiak, baina ahal zutenean jator etortzen ziren ordaintzera.

Botikari lanaz gain, herriko osasun inspektorea nintzen eta uren analisiak ere neuk egiten nituen.

Erdiko kaleko giroa, hainbeste denda inguruan, berezia izango zen?
Orduko Erdiko kalea, ERDIKO KALEA zen, inguruko dendetan jendearekin solasean hasteko beti prest zeuden zenbait artista. Ni pixka bat alboratuta gelditzen nintzen, zeren herriko botikaria nire laguntzailea, Ramon nire neba zen. Hark zuen Ramon botikaixua titulua. Badakizue, gizonen mundua.

97 urte beteko dituzu aurten. Nola bizi zara?
Oso ondo daukadan adinerako. Egunero ateratzen naiz kalera eguerdi aldean, eta jada ez naiz ausartzen bidaia luzeak egitera-eta, baina hainbeste urtetan Ametza-nean bizi ondoren, neure pisutxoan primeran moldatzen naiz.

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:46 Página 14

Mutrikuko mollak konpontzen

Azken astietako itsaso zakarrak majo astindu ditxu geure portuak. Baitxa Mutrikukua ere. Naturak indar erakustaldi ederra egin digu. Ez da hau olatuek kaltiak eragin ditxuen lehelengo aldixa, ez horixe.

Pertsona aditxu batzuen esanetan, Mutrikuko portua, Gipuzkuako porturik zaharrenetakua da. XIII. gizaldirako, bazan harlanduzko portua.
Sasoi baten, inguruko beste portuen aldian, portu segurua zan. Ekaitzak-eta zozenian Ondarruako eta Lekeitxioko barkuak geurera etortzen ziran babeseske. Halaixe deskribitxu zoan Mutrikuko portua, 1771. urtian, orduko alkatiak –Antonio Miguel de Acilonak–: *"tiene un puerto muy seguro con su muelle para las lanchas pescaderas y navíos marchantes que se abrigan en él de arribada por la mareta, y temporales recios"*.

XIX. gizaldixaren amaiera arte, *Barruko portua* esaten dixauna baiño ez zauan. Batetik, *Kofraixako mollia* esaten zakona zauan –kofraixarik gabe, jakiña!–, eta bestetik, *Molla zaharra*. Barruko portu hortan *Intxirri txikixa* zauan eta Kanpoko portuan, *Intxirri haundixa*. Aspaldiko dokumentuetan, *Anchirri* izenez agertzen zaku lehelengua.

1895. urtian Evaristo Txurrukak beste bi molla egitxeko proiektua aurkeztu zoan. Laster egin zitxuen *Danborra* esaten dixaun mollia eta *Astilleroko mollia*. 1902an *Molla berrixa* egin zeuen.

Barruko portua txikixa izan arren, itsasua hasarratzen zanian errez apurtzen ziran bertako mollak. Konparaziotarako, 1686 eta 1724 urtietan itsasuak zulo haundixak egin zitxuan molletan. Holakuetan, udalak estuasun haundixak pasatzen zitxuan harek konpontzen. Behin baiño gehixotan, diru-laguntzia eskatu bihar izan zion Probintziari, 1769an bezela: *"...por acudir al reparo de otros trozos del antiguo muelle, que desde entonces succesivamente han hido cediendo al ímpetu de las olas, y han agotado las rentas de la Villa suplicante"*.

Urte luzietan, portua konpontzeko arduria udalarena izan zan. XIX. gizaldira arte, Mutrikun porturatzen zan arrain freskuaren ehuneko zazpi eta erdi mollako obrak ordaintzeko erabiltzen zan. 1866an, Mutrikuko portua bigarren klaseko portu izentau zeuen eta Estatuarena izatera pasatu zan konponketen arduria. 1981. urtetik aurrera, Eusko Jarlaritzak hartu zoan zeregin hori.

XVI.-XIX. gizaldixetan Mutrikuko mollak konpontzeko materixalak hurretik ekartzen zitxuen:

Harrixa, ezinbesteko materixala zan. Batzuetan itsasoz aillegatzen zan, Iñurritzatik (Zarautz) edo Arbetik. 1603. urtian, *"çinco pinazadas de piedra que de Ynurriça truxieron para las obras"*. 1851. urtian, berriz, Arbeko harrixa ibilli zan portuko adokiñak egitxeko. Lihorretik ere ekartzen zeuen harrixa, Miruaitzetik gehixenbat. Holakuetan, lera edo narretan karriatzen zeuen.

Orduan ez zan hormigoirik-eta, eta harrixakin batera *morterua* prestatzen zeuen. 1788ko dokumentu batek Mutrikuko mollak konpontzeko morterua egitxeko "ingredientiak" ematen diguz: hondar lodixa, ladrillua edo teillia txiki-txiki eginda, burdiñolako *sarra* ('escoria') eta karia.

Hondarra, itsasoz ekartzen zeuen, gehixenetan Debatik, baitxa Ondarruatik ere, iñoiz. 1769an Debatik *"60 chalupadas de arena"* ekarri zitxuen.

Sarra, normalian Berriatuko Obekola burdiñolatik ekartzen zeuen; lehelengo, Obekolatik Ondarruako Errenteriara burdiz –idixekin–, eta handik Mutrikura itsasoz. Mendarotik ere ekartzen zeuen batzuetan, Deba ibaixan zihar.

Karia, Mutrikuko baserrialdetik ekartzen zeuen, burdixetan. 1602an, 200 anega kare ekarri zitxuen Mendibeltzuko karabitxik eta 210 anega Urreiztietatik. 1617an 374 anega ekarri zitxuen Lasaotik.
Mollako harrixak finkatzeko pago-egurrez egindako zirixak ('cuñas') erabiltzen ziran.

Pisu haundiko harrixak mobitzeko *matxiña* (*"machina"* agertzen da dokumentuetan) konpontzen ere ez zeuen lan makala izaten. Askotan aitxatzen da dokumentaziuan, *"la grua del muelle con que se levantan y alçan las piedras grandes"* (1616).

Portua konpontzeko lanetan lagun asko batzen zan. Beste herri batzuetako langille gitxi batzuk izan ezik (hargin-maisuak, aditxu batzuk...) gañerakuak mutrikuarrak ziran: hargiñak, arotzak, errementarixak, materixala karriatzen zeuenak (idixekin, otarrekin...), mollia egitxen zeuenak... Aitxatzeko modukua da, emakumezko asko ibiltzen zala materixala karriatzen. 1630. urteko dokumentu baten, esaterako, hau irakurri leike: *"ocho jornales de moças y mugeres que se ocuparon y travajaron en las sobredichas obras en dar y carrear la cal, piedras y lo demás necessario al pie de la obra"*.

Josu Larrañaga Arrieta

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:46 Página 15



Goienetxe-errota edo *Errotazar*

Pasa den hilabetean azaldutako Zelaietako errotaz gain, gutxienez, beste errota bat ere egon zen *Olatzgoiko erreka* inguru horretan. Zelaieta eta Kobaldetik gorako inguruari *Olatz goixa* esaten zaio. Dokumentu zaharretan berriz, *"Valle de Yturriza"* irakurtzen dugu. Behetik gora eginda, errekaren ezker-eskuin, hainbat baserri egon zen: *Etxerre-Olatz, Urreiztieta, Sakoneta, Iturritza, Txurruka, Goienetxe* eta *Eskutur*. Gehienak bertan daude, gaur-egun.

1733an, Domingo de Yriondok, Goienetxe baserriko jabeak, Mutrikuko udalari eskaera bat egin zion: Udalarenak ziren bere baserri inguruko lur-sailak eman ziezazkiola, Goienetxekoak *Amentxa Ondoa*n eta *Eznamendi*n zeukan gaztainadi baten trukean. Udalak onartu egin zuen eta Goienetxe baserri inguruko lurrez gain *Amegi barrena* eta *Liñapotzueta*ko lurrak ere eman zizkion. Lur horiekin batera, Yriondo egitekotan zegoen errotarako uren eskubidea ere eman zion udalak: *"con derecho de aguas para el molino que inttentta hazer"*.

1764. urterako errota egon bazegoela badakigu, *"molino de Goieneche"* agertzen zaigu dokumentazioan. 1775ean berriz, *Errota aldea* leku-izena aipatzen da Olatzgoiko errekaren inguruan. Errota honen azken aipamena 1793ko dokumentu batean aurkitu dugu; udalak hiru egur-karga saldu zizkion Lucia de Yturriza andreari inguru horretan: *"tres [cargas] en trasmocho de roble en Goienecheco errotaldia"*.

Aita J.M. Barandiaranek, 1928ko artikulu batean errota hau aipatzen du, eta ordurako hondatuta zegoela azaltzen du: *"Junto a las ruinas del antiguo molino, llamado "Errotazar", existe una peña de arenisca de grandes dimensiones. De ella cuentan que un jentil la lanzó a honda desde la punta del monte Miruaitz"*.

Olazko baserritarrekin hitz eginda, jakin dugu, gerra ostean, bidea egiteko apurtu egin zituztela harri horiek. Gaur egun, oraindik ere, Goienetxe baserritik hegoekialdera dauden aztarnei *"Errotazar"* esaten diete bertakoek. Errekatik gertu dagoen zabalgune baten aldamenean daude errotaren aztarna horiek. Ez dute errota lanean ezagutu, baina errota izan zala badakite, ahoz ahoko tradizioaren bidez.

Aztarnen inguruan, ez da ikusten kanal edo urbiderik. Errekan gora eginda, 290 metroko altueran, *Lizarreta* parajetik gertu, presa txikitxo bat ikus daiteke, agian errotarako apropos egindakoa.

Ez dakigu noiz arte egon zen martxan errota hau.

Hori, Goienetxe baserriari dagokionean. Baina, 1622. urteko aipamen bitxi bat aurkitu dugu, *"A Domingo de Larrea …. le benden el trasmocho de un monte rrobledal del dicho conçejo que está pegante a lo pertenecido de la casa de Yturriça, del molino de la dicha casa para arriba"*. Hori irakurrita, ez dakigu zer pentsatu; Iturritza eta Goienetxe baserrien lur-sailak ez zeudenez oso urruti... beharbada, Iturritzako errota hondatuko zen eta geroago (1733) leku-berean beste errota bat egingo zuten?

Beste aukera bat izan daiteke, Goienetxeko errota eraiki zen lekua baino beherago, Iturritzakoen lurretan, beste errota ezberdin bat egon izana, zaharragoa.

Javi Castro eta Josu Larrañaga

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:46 Página 16

BERTAN

“Herritarrekin eta herritarrentzat lan egin nahi dugu”

Haize berriak nabari dira BERTANen. Egoera beltzaren aurrean indartsu heldu diote BERTA-Nekoek datozen garaiei. Barrura begirako aldaketak direla diote eta kanpoan nabaritzea euren helburua. Beste elkarteekin ere badabiltza harremanetan denen artean indarra egitea errazagoa baita.

Udazkenean Bertanek inkesta bat zabaldu zuen bezeroen artean, emaitzen berririk jakiterik bai?

Parte hartzea ona izan dela esan dezakegu, nahiko genuke jende gehiagok erantzun izana baina jasotakoekin gustura gaude. Puntu batzuk positibo baloratu ditu jendeak eta uste dugu horiek ez ditugula galdu behar: bezeroarekiko harremana, tratua eta produktua bera ondo baloratuak izan dira, hau da, kalitatea eskeintzen dugula.

Bestalde, alde negatiboak ere azaltzen dira, prezioak eta ordutegi kontuak. Prezioari buruz, konparaziotzat jartzen badigute denda handiak eta Internet, argi dugu horiekin ezin dugula lehiatu.

BEZ edo IVA zenbat igo diguten, eta prezioak mantentzen ari gara, hau da, zerga guztiak gu ari gara jaten. Lehen esan bezala, denda erraldoi hoiekin ezin dugu jokatu, joku arauak ez direlako berdinak eta beti aterako garelako galtzen. Horren aurka guk zer egin dezakegu? Tratu pertsonalizatuarekin jarraitu, bezeroak mimatzen jarraitu eta ahal dugun neurriko prezioak eskeini.

Bizimodua aldatzearekin batera erosteko ohiturak ere…

Jendea oso lotua dago bere lanera eta arratsaldean edo iluntzean iristen denean herrira ez dauka denborarik dendaz-denda ibiltzeko eta nahiago du leku berean erosketa guztiak egitea, beraz, errazena da larunbata arratsaldean kotxea hartu eta merkatalgune handietara joatea. Gero gainera dena merkeago dagoenaren irudipena ere badago. Gureari lotuz esan nahi dugu, erraztasunak eman izan ditugunean, hau da, dendak ordutegi zabalagoan ireki direnean, erantzuna ez dela hain ona izan.

Kontsumitzeko eta bizitzeko modu berriak bere ondorioak ditu. Internet bidez erosten dutenak asko dira, batez ere gazteak eta horrek ere ez du gure alde jokatzen. Eta arazo potoloa bilakatuko da, herria hiltzen joango delako. Eta dendarik ez daukan herria zer da? Lo-herri bat, dendarik ez daukan herria, herri hila da. Iritsiko da mementu bat zerbait behar izango duguna, eta dendarik ez dagoelako ezin izango duguna erosi. Internetetik erosi eta ez daukazu mementuan zure eskuetan, eta ez da samurra izango uskeria bat erosteko ko-

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:46 Página 17

txea hartu eta kanpora joan behar izatea.
Nik uste dut krisiak ere baduela eraginik, jendeak gehiago begiratzen dio diruari eta ez du ikusten jokaera horrek herriaren heriotza ekarriko duela, ez du etorkizunean pentsatzen. Zer herri mota nahi dugu? Etxez osatuko herri bat, dendarik eta tabernarik gabekoa, bizitzarik gabekoa…?



Argi gorria piztuta al dago?

Baietz esango nuke baina ez dut uste jendeari asko axola zaionik. Azkenean zirkulu itxi bat da: herrian erosten ez den bitartean produktu gutxiago daude, horrek esan nahi du prezioak ere ezin ditugula guk nahi beste egokitu, eta horrek era berean bezeroa murrizten digu… zirkulu bat da. Herrian asko erosiko balitz, fakturazioa handiagoa izango litzateke, prezioekin jokatzea emango luke… Zaila da egoera eta gure bizkarrean ere ezin dugu hartu herriaren etorkizuna.

Ez al da denon artean egin beharrekoa, herria berpiztearena?

Sentimendu hori guk dendariok besterik ez dugu. Agerian jarriko bagenu hilabetean zer eramaten dugun etxera, udaletxeko, diputazioko, BEZ zerga… eta ditugun zerga guztiak ordaindu eta gero jendeak ikusiko luke superbibentzian bizi garela, baina hori guk besterik ez dugu ikusten. Bizi dugun makroekonomiak ito egiten gaitu leku guztietatik eta askoren iraupena zintzilik egon daitekela uste dugu.

Gabonetan ere kanpaina berezia egin zuen Bertanek…

Zer esana eman du, batzuentzat ona eta beste batzuentzat txarra izan da eta gure artean gelditzen den sentsazioa da: edo oparitzen dituzu gauzak oparitu egin behar direlako edo bestela batzuen kexa dago. Gustatuko litzaiguke esatea, esfortzu bat egiten dugula herrian saltsa sortzeko, mugimendu gehiago egoteko, baina ez garela Errege Magoak. Herriari begiratzen diogu baina gure interesei ere begiratu behar diegu.
Askotan eta askotan eskatzen zaigu merkealdiak egiteko, promozioak egiteko, erregaluak egiteko… eta dena ere ezin da, gu neurri-neurrian ibili behar izaten gara aurrera egiteko. Jarraituko dugu ekintza puntualak egiten baina ezin digute gehiago ere eskatu.

Aurrera begira zer?

Lana-lana eta lana. Gure artean laguntzea eta herritarrekin harremanetan jarraitzea. Gure puntu indartsuak ahal den gehiena landu: tratu pretsonala eta kalitatea zaintzea. Ez garela ari inor engainatzen, askotan komertzio handietan hori dena galdu egin da eta guk gurean jarraitu behar dugu.

Zein da Bertanek zabaldu nahi duen mezua?

Gu eta gure dendak ezagutzea nahi dugu. Jakitun gara jende askok ez dakiela zein produktu saltzen ditugun gure dendetan eta gure lana da hori erakustea eta eskeintzea. Gero bati edo besteari ez zaio gustatuko edo ez du hori nahi izango eta ez da ezer gertatzen. Dendara sartzeak ez du esan nahi erosi egin behar duzunik, sartzeak ez du erosteko konpromezurik sortzen. Zaila da jendeari ikus araztea ez garela hain txarrak.

Kanpokoa politagoa omen da, merkeagoa… eta konturatzen zara urte asko pasa ondoren jende asko eta asko gaur egun oraindik dendatik ez dela pasa. Badago jende asko erosketak herrian egiten dituena. Beste asko arrazoi ezberdinengatik sekula gure dendan sartu ez dena. Garestiak garela uste dutenak. Produktu txarra daukagula uste dutenak. Hau eta bestea… guk jende horri nahi diogu luzatu gonbidapena gure dendak ezagutzera. Edozein egunetan dendariari galdetzea. Zer saltzen dugun ikustea eta horrela baieztatzea edo ezeztatzea duten “uste” guztiak.
Denon arteko konplizitatearekin gauza asko eta onak egin daitezke eta eutsi nahi diogu gure ofizioari.

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

txirritxa.com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrildea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:46 Página 18

OKELAR ANAIAK BERTSOPAPER SARIKETA 2013

Mutrikuar onena saria: Laneko kontuak

Egilea: Iñigo Arrizabalaga. Doinua: Bederatziko motza

Aurtengo sariketan aurkeztu ditudan bertsoak izenburuak berak dioen bezala laneko kontuei buruz dira. Lanean, lagunartean, tabernan... entzuten ditugun kontuei neure kontuak gehitu dizkiet, eta hauek modu sinple baten bederatziko motzean moldatu ditut. Zergatik aukeratu dudan gai hau eta ez beste bat? Ba aurten ez nuelako nahi bertso sakonik aurkeztu, ez metafora ez bigarren zentzu, umoretik abiatuta sinple sinple, eta azaletik lantzeko hain larria eta mamitsua den gaia egokia iruditu zait, denon ahotan darabilgun gaia baina eskutatik aspaldi joan zitzaigun arazoa.

Iñigo Arrizabalaga

1. Snow-en elur maldak,
surfean olatu,
moto ta bizikletan
martxak aldatu,
gastronomi aditu,
gauez basakatu,
erropa onak jantzi,
asko bidaiatu.
Danetik probatu,
ta dana gustatu,
gustu aina gastu,
ezin aberastu,
ze lanarekin ez zait
hori pasatu. (bis)

2. Zortzirak hiru gutxi
a ze panorama,
oraindik kendu gabe
daukat pijama,
gainean dut mobila,
garai baten ama,
ondo irabazi det
inpuntual fama.
Beraz zerk narama,
ni lanarengana,
bizkaitar esana,
arrazoi daukana,
gurea beharra da
eta ez lana. (bis)

3. Kafe ordua azkar
lanorduak lento,
ta tabernan jarrita
denak atento:
“lana daukazu eta
ez zoz kejatzeko”.
Len kotxau batzuk ginen
ta orain zorteko?
ta hola hobeto,
ez daukat saltzeko,
hobe berton kieto,
krisi hau tarteko,
gogoa sartu zaigu
lan egiteko. (bis)

4. Baina sarri lelotzat
hartu ohi gaituzte,
lana osasuna da
esaten dute,
hala balitz dohainik
egingo genuke,
lege kanpaina martxan
jarriko balute,
lan egin bost urte,
baimenaren truke,
ta gero hil arte,
guztia disfrute,
nik nire sinadura
botako nuke. (bis)

5. Esaten da ez zaitez
bizi lanerako,
lan egin bizitzeko
luze ta bapo,
hori ez da arazo
gaur gazteentzako,
inguruan ez dauzkat
hiru horrelako.
Ta eutsi beharko,
horrela delako,
penei eman alto,
nola ez dugu ahalko?
Umore ona behintzat
ez da faltako! (bis)

3. Saria Gaztetxoak: Gabonak

Egilea: Micaela Bias
Doinua: Astoa ikusi nuen

MUTRIKUKO BERTSO-ESKOLA

Gabonak ia-ia
Heldu egin dira.
Zuhaitza eta bolak
atera erdira.

Jaiotza jarri eta
argiak dirdira.
Goiko plazan gauean
Olentzero ari da.

Olentzerori beti
hainbeste eskari.
Beti Olentzerori
eskatzen opari.

Gabonak gertu daude
eta oporrak hartu,
Eta opariekin
primeran pasatu.

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:46 Página 19

Zakilaren tamaina

Interneten irakurri izan dut zakila handitzeko metodoak badaudela; balio al dute eta egia al da zakil handiak plazer gehiago ematen dietela neskei?

Pilulak, luzatzeko tresnak, luzatzeko edo gizentzeko kirurgia plastikoa...Interneten hainbat proposamen topatu ditzakezu "arazoa" konpontzeko. Baina, fidagarriak eta beharrezkoak al dira?

Zakilaren tamainarekin kezkaturik egon gaitezke oso barneratuta ditugun hainbat sinesmenen eraginagatik: zakilak gizontasuna adierazten duela eta zakil txikia duena erdi-gizona dela, zakil handia erakargarriagoa dela, plazer gehiago ematen duela, indarraren seinale dela...

Gizonezkoak askotan kezkatzen dira ez ote duten zakil txikiegia pentsatuz, ala ere bikotekideak, ligeak...zakilaren tamainagatik hanbeste kezkatzen dira? Are gehiago, neska batzuk beldur dira mutilaren zakila handiegia izan eta sarketan ez ote duten minik sentituko.

Zein da zakilaren bataz besteko tamaina? Tamainarekiko kezkarik batere ez izan arren, horren gaineko jakin-mina beti egon ohi da. Etengabe konparatzeko joera izaten dugunez, gero eta lehiakorragoak gara arlo guzteietan eta hortaz baliatzen dira hainbat produktu saltzeko. Interneteko orrilade batzuetan 17 zentimetro baino gutxiagoko zakila txikitzat jotzen dute, beste batzuetan aldiz bataz besteko 16 zentimetrokoa dela diote. Orrialde hauetan luzatzeko pilulak edota tresnak saltzen dira eta bataz bestekoa puzten dute horretarako, adierazitako neurritik behera geratzen dena lotsatu eta beren produktu miresgarriak erosiko dituen esperantzan.

Saltzeko interesik gabeko orrialdetan zenbakiak ez dira bat etortzen aurretik aipatutakoarekin. Bigundutakoan txikitxoa bada gehiago hasiko da erekzioan, handia bada bigun dagoenenan gutxiago handituko da gogortzerakoan.

Txikia ala handia, gorputzaren atal interesgarria da, zalantzarik gabe, beste gauza batzuen artean konparaketarik gabe ezagutu eta gozatzeko balio duena.

Zakilaren tamainari buruzko orriladeetan kuxkuxeatzen baldin bazabiltza, "emakumeek zakila handiak dituzte gustuko!", "emakumeak asetzeko zakil handia behar duzu, bestela ez dute ezer nabarituko", bezalako afirmazioak ageri zaizkigu. Beste leku batzuetan, tamaina eta eiakulazio goiztiarra lotzen dute, zerikusia izango balute bezala. Eiakulazio goiztiarra emakumearen plazerrarekin lotzen dute eta horrela zakila luzatzeko produktuen ekuazioa osatzen dute: tamaina handiak=larru-jotze luze eta indartsuak=emakumeekin arrakasta handiagoa.

Plazerra emateko zakil handia beharrezkoa dela esaten dugunean berriz, koito baginalean pentsatzen dugu. Baginaren sakontasuna 11 eta 14 zentimetro artekoa izan daiteke, 17 zentimetrotara helduz. Baina barreneko zati batek ez du apenas sentikortasunik, pentsa bertatik ume bat jaio behar dugula...

Beraz, emakumeen plazerrak ez du zertan areagotu baginaren barruko aldea igurtziz, baizik klitoria, aluko ezpainak, baginaren sarrera edo gorputz osoa igurtzean. Eta beste praktika guzti horietan zakilaren tamainak ez du inolako eraginik.
Plazerra eman eta jasotzeko unean ordea, zure jarrerak zentimetro kopuruak bainao askoz garrantzi handiagoa dauka, zakila ez delako gozamenaren barita majiko ezinbestekoa.

ixasexualitateskola@gmail.com

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:46 Página 20

ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK

FATIMA
Martxoaren 15ean urteak betetzen dituzulako, zorionak eta muxuak asko maite zaituen familia eta lagunen partez. Ondo ondo pasatu!

NAROA
Martxoaren 30an zazpi urte beteko dituzunez, zorionak eta ondo pasa! Bereziki zure anaia bitxitoaren partez.

JANE
Etxeko kirolari onenarentzat zorionak martxoaren 26an bere eguna delako, etxeko danon izenean.

ENARA
Martxoaren 5ean 8 urte bete dituzulako bihotzez zorionak etxekoen partez.

IÑIGO
Martxoaren 11n 3 urte haundi bete dituzulako zorionak aitite, amama eta osabak.

ARANTXA
Berandu baina bihotzez zorionak Iratik eta Anerrek.

SOCORRO
Zorionak eta muxu asko familiak. Segi holakotxe guapa.

GABIÑE
Zorionak txistulari, argazkilari, kazetari, teknikari, ...ari, ari,ari. Geure partez muxu.

IZAR eta DORI
Martxoaren 25ean zorionak eta muxuak biontzat etxekoen partez.

ROSA, EBER eta UNAI
Zorionak hirukote martxoaren 13an, 16an eta 19an zuen urtebetetzea izan delako. Milaka musu etxeko danon izenian bereziki Ibaik, Enaitzek eta Anerrek.

FIDESLAN

Saioa Tena Peña

Fideslan-eko
Agente Frankiziatua

Tel. 615709859
saioatena.fideslan@gmail.com

Arreta Pertsonalizatua eta gertuko zerbitzua.

- **ENPRESA eta AUTONOMOEI ZUZENDUTAKO AHOLKULARITZA**: kontablea, fiskala, laborala

- **KONSULTORIA ZERBITZUA**: finantza kudeaketa, giza baliabideak, enpresa zuzendaritza...

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:46 Página 21

1968ko uda mutrikuko portuan

Martintxok lagatako argazkixak

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:47 Página 22

ZAINTZAKO BOTIKAK

MARTXOA: Gaueko 10ak arte

17tik **20**ra Zalduegi
21etik **23**ra Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
24tik **27**era Otxagabia
28tik **30**era Apraiz
31 Burgoa

APIRILA: Gaueko 10ak arte

1etik **3**ra Burgoa
4tik **6**ra Zalduegi
(zapatu goizian Otxagabia)
7tik **10**era Apraiz
11tik **13**ra Otxagabia
14tik **17**ra Zalduegi
18tik **20**ra Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
21etik **24**ra Otxagabia
25etik **27**ra Apraiz
28tik **30**era Burgoa

Gaueko 10etatik aurrera ELGOIBARREN
ikus 4. orrialdea

MENDI IRTEERAK

APIRILAK 6
BELATE - SAIOA
ULTZAMA

GURE ESKU DAGO

Gure esku dago
Aurkezpen ekitaldia
Martxoak 23an, 12:00etan
Zabiel Kultur Etxean

MARTXOA - APIRILA

Martxoak 20, eguena
Kafe tertulia: **Zaintza.**
18:30etan Luardon.

Martxoak 22, zapatua
Kamara kontzertua
HIRUBI haize boskotea,
20:00etan Komenduan.

Martxoak 27, eguena
Hitzaldia: **Abortu Legea**
18:30etan Luardon.

Martxoak 30, domeka
Mutrikuko Musika Bandaren **kontzertua**
13:00etan Zabiel plazan.

Apirilak 4, barixakua
LABURBIRA, film laburren emanaldia
22:15etan Zabiel Kultur etxean.

XIX. BERDEL EGUNEKO EGITARAUA

Apirilak 4, barixakua
20:00etan BERDEL AIPAMENA
Udaletxean

Apirilak 5, zapatua
11:30etan Trikitilarien KALEJIRA

12:00etan Goiko eta Beheko Plazetan BERDEL PINTXOAK (Jarritoki, Pikua, San Juan, Urgain eta Zumalabe Sukaldariekin)

13:00etan KORALAK Zabiel Plazan

17:30etan Trikitilarien KALEJIRA

18:00etan BERDEL DASTAKETA portuan

21:30etan Pop-Rock KONTZERTUA "LAUROBA" eta "MANENT" taldeekin portuan.

23:00etan AMAIERA

- Etxea apaintzeko proiektuak
- Altzariak
- Sukaldeak
- Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

AB AROZTEGIA
BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

CÓNDOR

Arrain kontserbak

ZIZZO BILLANTE HNOS. S.A.

Mijoa Industrialdea, P-21 · 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) Tel.: 943 60 31 41 Fax: 943 60 44 39

12.00.500/99 C.E.

K137:kalaputxi aldizkaria.qxd 13/03/14 02:47 Página 24